

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

2026rako TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPENEI ETA MURRIZKETEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA

Ekonomia sailak aurkeztutako txostenak kontuan hartuta.

Kontuan hartu da Antolaketa eta Ogasun batzordeak 2025eko irailaren 25eko bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

Lehena.- Tasa eta prezio publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen ordenantza fiskalean ondorengo artikulua hauek aldatzea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

12. artikulua.

1. Salbuespena edo murrizketa eskatzeko, subjektu pasiboak eskari-orri normalizatua egoki beteak aurkeztu beharko du udal erregistroan, hernani.eus webgunean edota 39/2015 Legeak zehaztutako modu eta tokietan.

2. Eskabidea ordezkari batek aurkezten bada, ordezkaritza hori egiaztatzeke agiriak ere aurkeztu beharko dira.

3. Eskabidea behar bezala beteta ez badago edo dokumentazioa falta bada, eskatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du, jakinarazpena egiten denetik aurrera, antzemandako akatsak zuzentzeko.

4. Udal-erregistroko langileek, eskabidea behar bezala bete dela egiaztatu ondoren, Errenta Sailari bidaliko diote espedientea.

5. 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalak Gipuzkoako Foru Ogasunean zuzenean kontsultatuko du, interesduna hala egitearen aurka azaltzen ez bada, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, salbuespenak eta murrizketak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeke behar den informazioa, eta, bereziki, datu hauek:

- Trafikoko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuaren datuen kontsulta
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Ondasun higiezinaren kontsulta
- Eusko Jaurlaritza: Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta
- Foru Ogasunak: PFEZ kontsulta
- Foru Ogasunak: Kontu-mailaren kontsulta
- Foru Ogasunak: Ondare mailari buruzko kontsulta
- Gizarte Segurantzako institutua: Gizarte prestazio publikoen kontsulta
- Lanbide: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia datuen kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen egungo egoeraren kontsulta

- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen aldiko zenbatekoaren kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan enplegu eskatzaile giza inskribatua egotearen kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Data zehatz batean enplegu eskatzaile giza inskribatua egotearen kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan langabezia egoeraren kontsulta
- Lanbide: Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera Aldika Kontsultatzeko Zerbitzua
- Lanbide: Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera Kontsultatzeko Zerbitzua
- EAEko Udalak: Bizikidetza – Bizikidetza-unitatearen errolda data jakin batean
- EAEko Udalak: Banakako errolda gaur egun
- Foru Ogasunak: PFEZ datuen kontsulta hedatua
- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailu zerrendaren kontsulta

6. Eskatzailea ebazpenaren egunetik aurrera izango da murrizketaren onuradun.

Bigarrena.- Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.

Hirugarrena.- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributua arautzen dituzten ordenantzak batera biltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria
Hernanin 2025Eko irailaren 30Ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

